



MARY SHELLEY



Shelley, Mary Wollstonecraft. Ingeles idazlea (Londres, 1797 - Londres, 1851). William Godwin anarkistaren eta Mary Wollstonecraft emakumeen eskubideen lehen defendatzailearen alaba. 1816an P. B. Shelley poeta erromantikoarekin ezkondu zen, eta hura hil zenean haren lanak argitaratu zituen. Bere obrarik ezagunena *Frankenstein* (1818) da, izu eleberrietako maisulantzat hartua dena. Horrez gainera beste bi liburu argitaratu zituen, *The last man* (1826, *Azken gizona*) eta *Lodore* (1835) autobiografia.

Frankenstein

MARY SHELLEY
IÑIGO ERRASTI



Hemezortzi urte zituen Mary Shelleyk Frankenstein idatzi zuenean. Hor sortu zuen azken mito modernoetako bat, etorkizun bikaina izango zuena, eta zinemari esker gaur egun ere ondo bizirik dirauena. Asko dira zinema mutuaren garaitik hasita gaur arte egin diren bertasioak, batzuk testuari atxikiagoak beste batzuk baino.

Gaur egun, ez da zorakeria esatea gutxik irakurri eta ia denok ikusia dugun istorio bat dela Frankenstein, aspaldi idatzia izan arren zuzen-zuzenean lotzen zaiena zientziaren aurrerapenak eta haren ondorioek gure garaian pizten dituzten eztabaida sutsuei. Gaurko ikuspegitik, dena dela, garbi dago munstro bat sortu zuen doktore burubero samar baten istorioa baino gehixeago dela Frankenstein. Baina "gehixeago" horretara hurbildu nahi duenak liburura jo beharko du nahitaez. Mary Shelley, feminismoaren aitzindari Mary Wollstonecraft-en alaba, "irakurleari ilea lazteko moduko" zerbait idaztera jarri zenean, izu-istorio zoragarriaz gain, arrazoiaz eta hizkuntzaz bere itsuskeria gainditu nahi duen izaki aldrebes baina xalo eta maitagarriaren istorioa sortu zuen.

Iñigo Errasti itzultzailea: "Oso obra modernoa da Frankenstein"

LITERATURA UNIBERTSALA BILDUMAN PLAZARATU BERRI IZAN DA

[*Frankenstein*](#) obra plazaratu eta berehala egin zen ezagun. Baina ospea, mito bihurtu zuen ospea, antzerkiari eta zinemari esker erdietsi zuen. "XIX. mende hasieran sortu zenetik mitoa handiagotzen joan zen, eta gaur egungo gai askorekin lotura zuzena duela esan daiteke". Zientziarekin eta zientziaren aurrerapenarekin zein arriskuekin loturik jarraitzen duelako Frankensteinen mitoak. Iñigo Errasti itzultzaileak ekarri du euskarara (argazkikoa), Literatura Unibertsala bildumaren bitartez. Aurkezpen ekitaldian Errastik berak eman zituen obrari buruzko hainbat azalpen.

Mary Shelleyk obra hau lehen aldiz idatzi zuenetik, beste bi edizio egin zituen artean bizirik zela. "Lehen ediziotik hirugarren ediziora gainera, antzerkirako egokitzapen bat egin zuen. Eta liburuak arrakasta handia izan zuen arren, antzerkiratzeak eman zion benetan gaur egun duen ezagutza. Egokitzapen horretan, aldaketa batzuk eman ziren istorioan. Antzerkian esate baterako, hitza kendu zioten munstroari. Baina nobelan munstroak hitz egiten du. Atzerkira egokitu zutenean, dramatizazio prozesuan, Frankenstein mutu utzi zuten. Eta harrez gero, bai antzerkian eta bai zineman ere, ia beti mutu geratu da".

Frankenstein aipatu eta filmeko Boris Karloff datorkigu burura, munstro bihurtuta. "Baina nobelan munstroak bilakera bat izango du. Egiten dutenean ona da munstroa, baina obrak aurrera egin ahala, dohakabe bihurtuko da".

Mitotzat jotzen da Mary Shelleyk idatzi zuen pertsonaia, baina oraindik "oso modernoa dela esan daiteke. Zientziarekin eta zientziaren aurrerapenarekin zein arriskuekin loturik jarraitzen duelako Frankensteinen mitoak".

Bizitza gorabeheratsua

Mary Shelley oso gaztea zen obra idatzi zuenean, baina ez zen edonor. “Oso bizitza gorabeheratsua izan zuen. Aita eta ama ezagunak ziren kultura zein literatura arloetan. Ama feminismoaren aitzindari izan zen, baina Mary jaio eta hamaika egunera hil zen. Zama hori eraman zuen gainean beti. Aita, aldiz, filosofo erradikal oso ezaguna izan zen. Eta aitaren eta alabaren arteko harremana oso tirabiratsua izan zen. Aitak tarteka bazterrean utzi zuen alaba. Hori igarri daiteke nobela honen pasarte batzuetan”, Iñigo Errastiren ustez.

Aitaren famari esker ezagutu zuen Percy Bysshe Shelley poeta, gerora bere bikote izango zena.

Zientziarekin interesatuta

Iñigo Errastiren esanetan, “ez da nobela gotiko puro bat. Nahiz eta halakotzat jo izan den”. Eta ez du kasualitatez idatziko Mary Shelleyk horrelako obra bat: “oso pertsona jantzia zen Shelley. Hezkuntza ona jaso zuen eta irakurzale amorratua zen”. Zientziaren aurerrapenean interes handia izan zuten berak eta bere senarrak, “eta hortik ateratzen da mito hau”.

Shelley, Percy Bysshe. Ingeles poeta (Field Place, Sussex, 1792 - Livorno, Italia, 1822). Ingalaterrako poeta erromantiko nagusietako bat da. Familia noble batean sortu zen. Ideia berrizaleen aldeko joera erakutsi zuen gaztetatik eta, 1811n, Oxfordeko unibertsitatetik egotzi zuten *The Necessity of Atheism (Ateismoaren beharra)* panfletoa idazteagatik. Urte horretan bertan Harriet Westbrook-ekin ezkondu zen. Hurrengo urtean anarkismoaren aintzindarietakotzat hartu izan den William Godwin pentsalaria ezagutu zuen eta, haren ildotik, arte eta filosofia aske baten alde egin zuen aurrerantzean. 1813an bere ideologiaren berri ematen duen *Queen Mab, a Philosophical Poem (Mab erregina, filosofia poema bat)* idatzi zuen. 1814an emaztea utzi zuen eta, Mary Wollstonecraft-ekin (M. W. Shelley izenaz ezaguna gero), William Godwinen alabarekin batera, Suitzara joan zen. 1816an *Alastor* idatzia zuen, eta Byron ezagutu zuen. Handik gutxira bere buruaz beste egin zuen Harriet bere emazteak, eta ukatu egin zioten bi semeak berarekin edukitzeko eskubidea. 1816. urtearen amaieran Mary Wollstonecraftekin ezkondu zen eta sorterritik joatea erabaki zuen. 1818an Italiara joan zen bizitzera eta, 1820an, Pisan finkatu zen. Bizitzako azken urteotan idatzi zituen Shelleyk obrarik onenak: *Prometheus Unbound (1819, Prometeo lokabea)* eta *The Cenci (1819, Cencitarrak)* alegiazko trajediak, *Epipsychidion (1821)* poema luzea eta, urte horretan bertan, *Adonais*, John Keats poeta eta adiskidea hil ondoren ondu zuen eresia. Poesiari buruzko saikera bat ere idatzi zuen, garrantzi handikoa, *A Defense of Poetry (Poesiaren alde)*. Itsas istripu batean hil zen, Livornotik gertu.

Frankenstein / [Mary Shelley](#) (Iñigo Errasti) / Erein-Igela, 2013

Onak gara berez? Alex Gurrutxaga / *Berria*, 2014-03-23

Mary Shelleyren nobela irakurri duenak badaki munstroa ez dela Frankenstein. Frankenstein, munstroa moldatu eta biziarazi duen doktorea dela. Halere, *Frankenstein baino itsusiagoa!* esaten da”. Joseba Sarrionandiaren hitzak dira, eta ematen dute pistaren bat jakiteko Mary Shelleyren nobela nola egin den ezagun. Askok ez du nobela irakurri, baina gehienok ezagutzen dugu istorioa; beldurrezko nobela da, zientzialari ero bati eta berak sortutako izakiari buruzkoa. Akaso horretan dago testuaren erakargarritasun nagusia, baina istorio izugarri bat baino gehiago da *Frankenstein*. Iñigo Errastik ekarri du euskarara, eta itzulpenak ez du tatxarik: lortutako baliokidetzaz gain, ematen du estiloa ederki harrapatu duela. Horretaz aparte, matizazio bana egin daiteke. Errastik ez du esaten itzulpena zergatik den nobelaren 1931ko edizioarena, eta ez 1918ko lehenbizikoarena. Ez da, jakina, hautu okerra, baina liburuari hitzaurrea egiten hasita, itxura da aukeraketa arrazoitzea, are gehiago kasu honetan, edizioen arteko desberdintasunak kontuan izanda.

Literaturari hertsiki helduz, beste matizazio bat. Errastik aurkezpenean esan zuenez, *Frankenstein* “ez da berez nobela gotiko puru bat, nahiz eta halakotzat jo izan den”. Nobela gotikotzat jo dute adituek, eta horretan nago neu ere. Egia da, halere, nobela erromantikotzat ere hartzekoa dela; horren adierazle dira, besteak beste, norbanakoaren garrantzia, naturaren eta barne-bizitzaren lotura eta kulpari buruzko gogoetak. Baina erromantizismoa ez zaio gotikoari kontrajartzen.

Edonola ere, Errastik zantzututakoaren bidetik, interesgarria da ohartzea gotikoa egiteko moduan dagoela nobelaren berritasun nagusietako bat. Alde batetik, gotikoaren motibo petoak daude —iluntasuna, piztia, paisaia izugarriak, eta abar— eta beldurra eragin nahi da. Gainera, gibelego ideietan ere hor dago gotikoa: sublime edo izugarriaren edertasuna, onaren eta gaizkiaren arteko dualismoa, edo protagonistaren nahia bere izatea gainditzen duena ulertzeko. Berritasuna dakarrena da Shelleyk ezabatu egiten dituela gotikoan ohikoak ziren osagai magiko eta naturaz gaindikoak. Kontuan izan behar da doktoreak zientzian, arrazoiaren eta jakintzan oinarrituz sortzen duela munstroa. Horrek dialektika berritzailea dakar literaturara, Ilustrazioak planteatu zituen ideien inguruan jokatzeko dena: aurrerapenaren eta zientziaren mugei buruzko eztabaida hain zuzen.

Beste interesgune nagusietako bat munstroaren izaeratik eratortzen da. Zientzialaria, Prometeo moderno hori, “buztin bizigabeari arnasa harrarazi” orduko damutu egiten da. Piztia, berriz, ona da sortzez, baina Paradisua ukatua zaio, jendarteak baztertu egiten du, eta bakardade horrek gaiztotzen du; honela dio berak: “Denean dakusat poztasuna, eta neuk bakarrik dut, halabeharrez, poz hori galarazia. Onbera eta zintzoa nintzen; zorigaitzak bihurtu nau deabru”. Ilustrazioaren ondorengo filosofiaren kezka nagusietakoak dira pertsonaren berezko izatea eta norbanakoaren eta jendartearen arteko tentsioa, eta Shelleyk lerro artera ekartzen ditu bere garaiko eztabaida nagusiok —eta, bereziki, Rousseauaren ideiak—.

Badakigu istorioa zein den, printzipioz. Alabaina, irakurketa ezinbestekorik bada, *Frankenstein* horietakoa da. Beldurrezko istorio gozagarri bat baino gehiago da: Mendebaldearen historia modernoan oinarritutako den dialektika gorpuzten du nobelak literatur maila nabarmenarekin. Onak gara berez?